EUSKAL GIZARTEAREN JARRERA ETA ITXAROPENEI BURUZKO INKESTA

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak azterlan bat egin du euskal gizartearen jarrera eta espektatibei buruz, azaroaren 2tik 7ra bitartean Euskadin bizi diren adin nagusiko biztanleei telefonoz egindako 1.101 elkarrizketatik abiatuta. Emaitzen arabera, oro har, bere lan-egoera, egoera ekonomikoa eta pertsonala positibotzat jotzen duen gizartea da, ongizate subjektiboko maila handiak ditu eta etorkizunarekiko nolabaiteko baikortasuna erakusten du, nahiz eta adinaren edo posizio sozioekonomikoaren arabera alde nabarmenak dauden.

EGOERA SOZIOEKONOMIKOAREN PERTZEPZIOA

Ekonomia- eta lan-egoeraren balorazioak azken urteetako erregistrorik onenak lortu ditu

Egoera ekonomiko pertsonalaren pertzepzioak hobera egiten jarraitzen du. Biztanleriaren %83k uste du bere egoera ekonomikoa ona edo oso ona dela, eta %17k txartzat edo oso txartzat jotzen du, 2009tik izandako ehunekorik txikiena. Ildo beretik, biztanleria landunaren %88k positiboki baloratzen du beren lan-egoera, azken urteetako emaitza onenetako bat.

Balorazio horrek, ordea, okerrera egiten du lanaldi partzialeko enplegua dutenen artean. Izan ere, lanaldi partzialean lan egiten dutenen %38k nahiago dute ordu gehiago lan egin eta diru gehiago irabazi; aukera hori bereziki ohikoa da gazteen artean. Biztanleria landun osoan, %63k egungo lanorduei eta diru-sarrerei eutsiko lieke, %18k gehiago lan egin eta gehiago irabazi nahiko luke, eta %16k gutxiago lan egitea eta gutxiago irabaztea aukeratuko luke.

Ingurune ekonomikoak okerrera egingo duela espero den arren, itxaropen pertsonalek sendo diraute

Hurrengo urteari begira, egonkortasun-aurreikuspenak dira nagusi: %54k uste du bere egoera ekonomiko pertsonala berdin mantenduko dela, %22k hobekuntza espero du eta %20k okerrera egingo duela uste du. Hala ere, aurreikuspenak negatiboagoak dira inguruneari dagokionez: %46k aurreikusten du Espainiako Estatuko ekonomiak okerrera egingo duela; Europar Batasunaren kasuan, berriz, %39k, eta Euskadiri dagokionez, %32k. Bestalde, herritarrek uste dute hurrengo belaunaldiak gaur egun duena baino egoera sozioekonomiko hobea izango duela, baina itxaropen horiek pixkanaka murriztu egin dira 2021etik.

ONGIZATE SUBJEKTIBOA ETA BIZI-KALITATEA

Ongizate eta bizi-gogobetetasun maila handiak

Biztanleriaren %85 oso edo nahiko pozik dago daraman bizitzarekin, eta zoriontasuna, batez beste, 7,2 puntukoa da 10etik, duela urtebete baino puntu erdi gutxiago. Zoriontasun-mailarik altuenak gazteen eta ikasleen artean, goi- eta erdi-mailako klase sozialetan eta seme-alabak dituzten bikoteetan ematen dira. Emakumeek gizonek baino zoriontasun- eta bizitza-gogobetetasun-maila zertxobait baxuagoak dituzte.

Bestalde, hamar pertsonatik zazpik uste dute osasun-egoera ona edo oso ona dutela. Pertzepzio hori %86koa da 18 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, eta %60raino jaisten da 65 urtetik gorakoen artean. Era berean, herritarrek uste dute beren bizitzari buruz erabakitzeko gaitasuna dutela. Batez besteko puntuazioa 10etik 7,1ekoa da, eta gora egiten du klase altuko eta 65 urtetik gorako pertsonen artean. Bestalde, herritarrek oraindik ere joera dute pentsatzeko pertsonak beren buruaz gehiago arduratzen direla besteak laguntzeaz baino, azken urteetan egonkor mantendu den pertzepzioa baita. Eta hori herritarren %64a gizartean oso edo nahiko inplikatuta sentitzen den arren.

Familiak, etxebizitzak eta lagunek sortzen dute gogobetetasun handiena

Aztertutako alderdien artean, balorazio altuenak familia-bizitzari (7,9 puntu), etxebizitzari (7,7) eta lagunei (7,6) dagozkie. Osasunak, aisialdiak eta lanak ere balorazio positibo nabarmena dute (7,2). Puntuaziorik baxuenak, nahiz eta gainditu, harreman sentimentalei eta/edo sexualei (6,8) eta hilean eskuragarri dagoen diruari (6,5) dagozkie. Azken hori da desberdintasun sozial handienak dituen eremua; izan ere, 7,7 puntura iristen da klase sozial altuko herritarren artean eta 5,3 puntura jaisten da klase sozial baxukoen artean, eta 4,3 puntura langabeen artean.

PRENTSA-OHARRA
NOTA DE PRENSA

2026ko AZAROAK 20
20 de NOVIEMBRE de 2026

ETORKIZUNEKO JARRERAK ETA ITXAROPENAK

Etorkizunari buruzko eszeptizismoak gora egin du, nahiz eta egonkortasunerako eta hobekuntza pertsonalerako itxaropenak nagusitu

Herritar gehienek etorkizuneko ongizatea orainaldian egindako ahaleginarekin lotzen jarraitzen dute. %60ek uste du gaur sakrifikatu behar dela bihar hobeto bizitzeko, batez ere hala uste dute gazteek, klase sozial aberatsenek eta ideologikoki eskuinean daudenek. Hala ere, pertzepzio eszeptikoenek ere gora egin dute: %24 ez dator bat ideia horrekin, duela bi urteko kopuru bikoitza. Gainera, %56ren ustez, etorkizunari buruzko ziurgabetasuna hain da handia, non hobe den orainaldian zentratzea eta egunetik egunera bizitzea. Iritzi hori zabalduago dago 30 eta 45 urte bitartekoen artean, bakarrik edo guraso bakarreko familietan bizi direnen artean eta ideologikoki ezkerrean kokatzen direnen artean.

Etorkizunari buruzko zalantzak areagotu egin dira 2021az geroztik, eta euskal gizartea ia banatuta dago baikortasunaren eta ziurgabetasunaren artean. Hori guztia, pertsonalki egonkortasun-itxaropenak nagusi diren arren: %54k uste du urtebete barru bere bizitza orain bezalakoa izango dela, %29k uste du hobera egingo duela, eta %12k soilik uste du okerrera egingo duela. Baikortasuna bereziki handia da gazteen artean: 18 eta 29 urte bitarteko hiru pertsonatik bik uste dute beren bizitzak hobera egingo duela datorren urtean, eta espektatiba hori pixkanaka jaisten doa adinarekin, 65 urte edo gehiago dituztenen %12k baino ez baitu hala pentsatzen.

Euskadiko herritarrak oso errotuta daude beren lurraldearekin

Euskadiren etorkizunari dagokionez, herritarrek aurreikusten dute datozen bost urteetan handitu egingo direla atzerriko immigrazioa, maskota duten pertsonen kopurua, erantzukizuneko postuetan dauden emakumeen presentzia, energia alternatiboen erabilera, adinekoen zaintzarekin lotutako arazoak edo etxebizitza eskuratzeko zailtasunak. Aitzitik, familia bakoitzeko seme-alaben kopuruak jaisten jarraituko duela uste du. Hala eta guztiz ere, herritarrek lurraldearekiko erro sendoak dituzte: etorkizunean %87k nahiago luke Euskadin bizitzen jarraitu. Proportzio hori egonkorra da denboran, eta bereziki handia da adinekoen eta ideologikoki ezkerrean kokatzen direnen artean.

BERDINTASUNA ETA INKLUSIOA

Berdintasunaren eta genero-aniztasunaren inguruko gizarte-adostasun zabala

Euskal herritarrek uste dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak aurrera egin duela, eta egun 6,5 puntukoa da 10etik. Balorazio hori zertxobait kritikoagoa da emakumeen artean: 6,3 puntu. Berdintasunaren pertzepzioak zertxobait behera egiten du lan-eremuari buruz galdetzen denean, batez besteko puntuazioa 6,3 baita. Bai gazteak bai ideologikoki eskuinean daudenak dira berdintasun-maila handienak hautematen dituzten kolektiboak. Bestalde, %82k uste du oso edo nahiko garrantzitsua dela LGTBIQ+ pertsonen eskubide-berdintasuna bermatzea. Azken ideia hau bereziki indartsua da gazteen (18-29 urte) eta adin ertaineko pertsonen (46-64 urte), goi-mailako ikasketak dituztenen eta ideologikoki ezkerrean kokatzen direnen artean.

Gizarteak babes handia ematen die euskaldunen hizkuntza-eskubideei

Era berean, %87k uste du garrantzitsua dela euskara dakitenek nahi duten lekuan erabili ahal izatea; iritzi hori nagusi da euskaraz ez dakitenen artean ere. Azkenik, herritarren %37k diote beren inguruan desgaitasunen bat duen pertsonaren bat dutela, eta ehuneko hori handiagoa da klase sozial baxukoen (%43) eta etxeko lanetara dedikatzen direnen (%42) artean.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Euskadin, 18 urtetik gorako herritarrei egindako 1.101 telefono-inkestak osatzen dute lagina. Lagin errorearen estimazioa ±%3,01 da Euskadi osorako (konfiantza-maila = %95,5; p=q=0,5).

OHARRA: Txosten osoa eta datu-basea Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri daude: https://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak